

Garaialde eta Rekalde, estatuek biei gerra





AURKIBIDEA

Iritzia Ura Iturralde **3**

Euskararen Eguna

Silvana Favrin brasildarra **4-7**

Asteko Gaia Estatuaren indarkeria gertutik: Garaialde eta Rekalde **10-17**

Arima Elikatuz Maddi Etxeberria **19**

Iritzia Manex Gurrutxaga **20**

Iritzia Maddi Amiano **21**

Agenda 22-24

Erreportajea Titirijai indartsu lau hamarkaden atarian **25-29**



Azaleko irudia
Jon Miranda Labaien

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goizatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

El Altoko emakumeen borroka

La Paz departamentuan kokatua, El Alto, Boliviako hiririk populatuenetarikoa izateaz gain gazteenetarikoa ere bada, 1985. urtera arte auzo bat besterik ez baitzen izan. La Pazko erdigunea erreferentziatzat hartuta, geografikoki goialdean kokatua, munduko hiririk garaienetakoa da, itsas mailatik 4.150 metrora. Ekonomikoki oso txirotua eta iskanbilatsua, guztien gomendioa zen ni bertan bakarrik ez ibiltzea.

Ni halaxe joan nintzen ordea, goiz eguzkitsu batean, merkatua ikustera. Ez nuen inondik inora neure burua arriskuan sentitu, alderantziz, izugarri atsegina iruditu zitzaidan.

Ohiko moduan kamera eskuan neramala, emakume gazte bat gerturatu zitzaidan, Paty zuen izena. Berak kontatuta jakin izan nuen bertako emakumeen egoera, pixkanaka hobetzen ari den arren, ez dela erraza.

Emakumeak dira kaleetan salmentan aritzen direnak, umeak alboan dituztela soldata negargarri baten truke. Ez dute aseguru-medikurik ezta erretiro-planik ere. Ikasketak alde batera utzi behar izan dituzte eta seme-alabekin kalera irten, hartzaindegia ordaintzeko dirurik ez dutelako.

Gaur egun ordea, El Alto hirian zenbait proiektu sortu dira egoera honi aurre egiteko. Eskolak antolatu dituzte emakume indigenentzat bertan ofizio bat ikas dezaten, dohainik. Gozogintza, jaskintza ikastaroak... asko dira ematen zaizkien aukerak. Umeak hartzaindegian utzita, ikasketak lasai burutu ditzakete beraien senarrek oztopatzen ez dituzten bitartean. Matxis-moa ere arazo oso larria baita, ez bakarrik hirian, herrialde osoan. Milaka dira IHESa duten emakumeak, gehienak gainera gazteak, 15-24 urte bitartekoak. Bada lantalde famatu bat emakumeen alde borrokatzen duena. Joskintza irakatsi ondoren, produktuak

Europar saltzen dituen dirua lortuz, aurre egin diezaizoten bizi duten egoera larriari.

Paty, ezagutu berri nuen emakumea, zen eta eguntan ere bada, aipaturiko taldearen zuzendaria. Oinez gindoazen bitartean, Rosalia aurkeztu zidan, berak laguntzen zuen emakumeetarikoa bat. Bere amaren etxe-ko patioan zegoen ehuntzen, umea alboan zuela.

Senarrak alde egin zion haurdun zegoela jakitean, ordutik Rosaliak ia inongo baliabiderik gabe gaixo dagoen ama eta bere semea zaintzen ditu. Paty ezagutu zuenetik bere bizia ordea asko hobetu zela esan zidan, orain etxean bertan arropa ehuntzen soldata bat lortu duelako.

Paty ezagutu zuenetik bere bizia ordea asko hobetu zela esan zidan Rosaliak, orain etxean bertan arropa ehuntzen soldata bat lortu duelako

Emakume gehiago ezagutzeko aukera ere izan nuen, Rosa, Ruth, Veronica... Aurrera atera direnak Patyk sortutako gobernu kanpoko erakundearentzat lan egiten. Nik argazkiak egin nizkien beraien webgunean zintzilikatu zitzaizkizuten.

Badakit oso ondo doakiela eta Europar arropa asko saltzen ari direla, gaur iritsi zaidalako nik ateratako argazki batekin eginiko postala eskerrak emanez.

Nik eskertu behar diet ordea El Altoko emakumeen egoera aurrez aurre ezagutzeko eman zidaten aukera.



«Euskara jakiteak izugarri laguntzen dit»

SILVANA FAVRIN
EUSKALDUN BERRIA

Irati Saizar Artola

Brasildik Euskal Herrirako bidea hartu zuen Silvana Favrinek (Porto Alegre, Rio Grande do Sul, Brasil, 1979) duela hamabost urte. Ibarran bizi da egun. Portugesa du ama hizkuntza, eta gaztelania, italiara eta euskara ere menperatzen ditu. Errusiara joan izan balitz errusiera ikasiko zukeen moduan ikasi du Euskal Herrira etorrita euskara, «edozein hizkuntza-ren parekoa delako, beste hizkuntza bat gehiago delako».

Zerk ekarri zintuen Euskal Herrira?

Etetik alde egin eta zuzenean Europara etorri nintzen, nire bizitza eraikitza, bizimodu hobe baten bila. Beste errealitate batzuk ezagutu nahi nituen eta formazio profesionalean ere sakondu nahi nuen. Italian hartu nuen lur lehenik, eta lagun euskaldun baten bidez Euskal Herriaren inguruko informazioa lortu nuen, eta hona etortzea erabaki nuen.

Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?

Harremanek, orokorrean. Lagunen bitartez ikasi nintuen lehendabiziko hitzak euskaraz. Izan ere, hona iritsi eta berehala euskaldunez inguratuta aurkitu nintzen, gogoa piztu zitzaidan beraiekin beraien hizkuntzan hitz egiteko. Asko gustatu zitzaidan hemen go jendea, hemengo bizimodua eta parrandak, eta konturatu nintzen euskara ikasteak lagundu egingo zidala errealitatera hobeto uztartzen, integratzen.

Eta euskara ikasten hasi zinen.

Hasieran Tolosako EPAn apuntatu nintzen. Klaseak astean behin baka-
rrik izaten genituen, eta horregatik erabaki nuen Tolosako Udal Euskaltegian apuntatzea. Salto handi bat eman nuen, asteko lau egunetan joaten nintzen klasera eta metodologia oso ona erabiltzen zuten. Klaseak interaktiboak ziren, irakasleak ere oso ondo prestatutakoak ziren, instalazioak ere onak, garai hartako oroitzapen politikak ditut. Hizkuntza bat ikasteko zein metodologia behar den buruan nuen, eta horrek asko erraztu zidan bizitza. Eta noski, hizkuntza bat ikasten duzunean, bertan bizi bazara, beti daukazu aukera jendearekin hizkuntza horretan hitz egiten saiatzeko»

tan hitz egiten saiatzeko, beraz, ez dut oztopo handirik izan euskara ikasteko.

Horrez gain, telebista eta irratia euskaraz sintonizatzen nuen praktikatu ahal izateko eta kalean, jendearekin beti saiatzen nintzen ikasitako guztia praktikan jartzen. Hizkuntza berri bat ikasten dudanean

koaderno txiki batean apunteak hartzea gustatzen zait, bisualki asko laguntzen didalako, eta kalean entzuten nuenarekin apunteak hartzen nituen. Esaterako, behin, «zemuz» hitza apuntatu nuen. Hurrengo egunean, euskaltegiko irakasleari galdetu nion hitz hori askok esaten zutela eta ea zer zen. Zer moduz esateko modu laburragoa zela azaldu zidan. Horrelako zalantzak apuntatzen nituen, behar guztiak ase arte.

Egunerokotasunean baliagarria zaizu?

Bai, inongo zalantzarik gabe. Alabekin ere euskaraz aritzen naiz.

Lanean ere bai?

Bai, une oro, beti euskaraz egiten dut. Lanean jendearekin hartu-emana izaten dut, eta parekoa euskaraz

IRAGARKI LABURRAK

SALGAI. Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.
Iragarki guztiak: **iragarkilaburrak.eus-en**.

ari bada ni ere euskaraz aritzen naiz. Batzuetan, ea iparraldekoa naizen galdetzen didate; nire hitz egiteko moduagatik izango da.

Jendeak eskertzen dizu euskara ikasteko egin duzun ahalegina?

Bai-bai. Batzuk literalki hitzekin eskertzen didate, eta beste batzuk ez dute ezer esaten, baina jasotzen dudana tratuatik eskertua sentitzen naiz. Jendeak euskaraz hitz egiten entzuten nauenean, tratua erabat aldatzen da. Euskara jakiteak harremanak egiteko eta komunikatzeko gertutasuna ematen dit. Beste herrialdeetan beraien hizkuntza jakinda bat gehiago zara eta hemen euskara baldin badakizu gehiago baloratzen zaituzte, euskaraz hitz egiten entzuten zaituztenean turista edo kanpotar izateari uzten zaio hemen.

«Euskaraz hitz egiten entzuten zaituztenean turista edo kanpotar izateari uzten zaio hemen»

Herri honetara iritsi, euskara ikasi eta jendearekin euskaraz mintzatu ahal izateak zer eman dizu?

Askok, izugarri eman dit. Hemengo kultura gertuagotik ezagutzeko aukera eman dit esaterako, edo lagun gehiago egitekoa ere bai. Euskal abestiak entzun eta ulertzea ederra da, baita euskaraz irakurri

ahal izatea ere, edota alabei eskolako lanetan lagundu ahal izatea ere bai. Euskara jakiteak izugarri laguntzen dit, zentzu guztietan.

Euskara ikasteko zalantzan dagoenari zer esango zenioke?

Animatu egingo nuke, zalantzarik gabe. Izan ere, udal euskaltegiko langileak oso-oso onak dira, ederki pasatzen da klaseetan, modu dinamikoan ematen dituzte ikasgaiak eta beti prest dade ikasleei laguntzeko. Beraien nahia horixe da, jendeak euskara ikas dezala.

ATARIAN jarrita Goierrri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
 Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
 Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
 Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



MAIER
UGARTEMENDIA
UEMAKO EUSKARA
TEKNIKARIA

Euskara transmititzea ez da nahikoa

Astehenean hasiko da Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako *Haurren aurrean helduok heldu* ekimena, helduen arteko hizkuntza-praktikak aldatzeko eta euskara gehiago egiteko ekimena. Izan ere, askotan euskararen erabilerari dagokionez haurrengan jartzen dugu arreta, baina sarri haurrak dira adin tarteei erreparatuta euskara gehien egiten dutenak. Horrela erakusten dute Tolosaldean egin izan diren kale neurketetako datuek ere.

Baina, posible ote da joera hori iraultzea 2021ean egin berri diren kale neurketetan? Uemako herrietako ikastetxe gero eta gehiagok kezka handia erakutsi digute. Haurrek gaztelania gehiago egiten dutela, eta gero eta lehenago erabiltzen hasten direla esaten digute. Joera orokorra da, baita arnaguneetan ere. Hori dela eta, Uemako herrietan haurren erabilera eta horretan eragiten duten faktoreak aztertzen ari gara. Baina, kezka hor dago eta normalean sentsazioekin bat egiten dute gero estatistikek eta zenbakiek ere.

Udalerrri euskaldunetako haur eta nerabeak ere bizi garen mundu honetako kide dira, gure eskualdeko haur euskaradunen profila ere aldatzen ari da, eta euren hizkuntza ohituretan faktore askok eragiten dute: ama-hizkuntzak, hizkun-

tza gaitasunak, input mediatikoak, kontsumo eskaintzak, pertsona eta talde erreferenteak.... Eta txikien kasuan norbait erreferente bada hori gurasoa da. Hain zuzen ere, horregatik haurrean aurrean gurasoek euskarari heltzeko beharra eta deia.

Guztiok dakigu haurrek esaten dieguna baino ikusten dutena errepikatzen dutela, eta beraz, guraso euskaldunen kasuan euskararen transmisioa lehen pauso garrantzitsua bada ere, ez da nahikoa. Ez da nahikoa gure seme-alabei euskara erakustea, gero guk egunero euren aurrean beste gurasoekin gaztelaniaz egiten badugu, haurrekin kotxean goazenean musika gaztelaniaz jartzen badugu eta familian alibistegiak gaztelaniaz ikusten baditugu.

Euskara transmititzea bezain garrantzitsua da euskararen balioa ere transmititzea. Euskaraz aditzeko

eta aritzeko aukerak eman behar zaizkio haurrari. Euskarazko erreferenteak eskaini behar zaizkio. Gustuko duen hori euskaraz egin daitekeela ikusi behar du: euskaraz maitatu, abestu, haserretu, jo lastu, jokatu, sortu... eta bere erreferente nagusi diren gurasoak ere euskaraz bizi direla ikusi behar du. Helduok euskarari tinko eutsita lortuko baitugu gure haurrek ere haurren zein helduen aurrean euskarari heltzea!

Euskara transmititzea bezain garrantzitsua da euskararen balioa ere transmititzea. Euskaraz aditzeko eta aritzeko aukerak eman behar zaizkio haurrari.



ATE IREKIAK
Azaroak 27, 11:00

GOIERRI
CAMPUSA

INGENIARITZA
MEKANIKOA GRADUA

Eman izena

www.mondragon.edu/ate-irekiak

ETORKIZUNA **ERAIKIZ** **CONGRESS**

Building the Future

Kursaal
Abenduak
13-14
2021

Kongresu honen xede nagusia Etorkizuna Eraikiz ekimena nazioartean aurkeztea eta kontrastatzea da. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ulertzeko eta ezartzeko modua da. Gipuzkoa Foru Aldundiak sustatua eta finantzatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen parte-hartze aktiboarekin. Hauek dira Kongresua antolatu duten lau erakundeak.

Izen-ematea:

www.etorkizunaeraikizcongress.com





Hiru lan-poltsa zabalik

Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Sailak hiru lan-poltsa ditu aktibo: etxeko lanetarako, zaintza lanetarako eta ostalaritzarako.

ETXEKOLAN: ETXEKO ETA ZAINZTA LANETARAKO

Etxeko lanetan eta zaintzan lan egin nahi duten eta egiten duten pertsonen gaitasunak hobetzeko, eta era berean, familiei eta langileei kontratazio prozesuan bitartekaritza eta lan baldintzei buruzko aholkularitza eskaintzen dien programa da.

1. Langileentzat

Etxeko edo zaintza lanetan aritu nahi dutenei orientazioa eta informazioa eskaintzen zaie, kontratazioaren baldintzen inguruan. Lan-poltsan izena eman eta formakuntza jasotzeko aukera ere eskaintzen da (gaitasun ziurtagiriak, euskara, etab.).

2. Familientzat

Etxean lan egiteko norbait behar duten familiei doako aholkularitza eta bitartekaritza ematen zaizkie, hautaketa prozesuan lagunduz.

OSTALARITZAKO LAN POLTSA

Taberna eta jatetxeetan zerbitzari, sukaldari edo sukaldari laguntzaile izateko lan-poltsa ere sortu da. Lan-eskaintza ugari izaten diren sektorea izanik, lan aukera berriak izatean profil horretako jendearekin harreman zuzenagoa izatea ahalbidetzen du poltsak. Ostalaritza establezimenduek ere zuzenean jo dezakete profil zehatzeko jendearen bila.

NOLA EMAN IZENA LAN-POLTSETAN

Lan-poltsetan izena emateko, lan@tolosaldea.eus helbidera idatzi edo Tolosaldeagaratzen.eus webgunekeko formularioa bete beharko da.

Tolosaldea Garatzen | Enplegu Saila
Lehiberri Zentroa
Apataerreketa Industrigunea, 1
lan@tolosaldea.eus
943 654 501

ESTATUEN INDARKERIAZ

Urteetan barrenean korapilatuta izan dituzten bizipenak askatzeko gonbidapena egin die TOLOSALDEKO ATARIAK Pilar Garaialde Salsamendiri eta Izaskun Rekalde Goikoetxeari. Estatu indarkeriaren biktimek herrikideen aitortza jaso dutela uste dute, eta orain instituzioek pauso hori emateko eskatzen dute.

Jon Miranda

Atxilotuak, torturatuak eta espetxeratuak izan dira behin baino gehiagotan. Estatuaren indarkeria gertu-gertu sumatu dute; aita hil zion bati Triple A-k eta GALen ekinaldiak Iparraldean harrapatu zuen bestea. Baldintzatu ditu indarkeriak, baina euren gorputzetan pilatutako biolentziak ez die bizitza mugatu, ezta solasaldi honetan parte hartzeko go-go. Mugarik gabe baina hitzak neurtuta jardun dute.

ITZALETIK ARGIRA

Izaskun Rekalde. Gaztetako oroitzapen lauso batzuk gordetzen ditut. Esate baterako, Bentaundin Txabi Etxebarrieta hil zutenekoa. Zerbait gertatu zenaren hotsak iritsi zitzaizkigun. Gau hartan gure etxe atarira bizpahiru pertsona gurturatu zitzaizkigun hilerria

non zegoen galdezka. Gu orduan Miserikordiako horretan bizi ginen. Seinalatu genien bidea eta orduan esan ziguten Txabiren senitartekoak zirela.

Pilar Garaialde. Hamar urteko aldea dugu bion artean, baina nik gordetzen ditut garai hartako oroitzapenak ere. Artean umea izango nintzen, baina akordetzen naiz nola 1968ko Aberri Egunean pintadaz josita azaldu zen Alegia. Jokin Gorostidi nire aitaren lehen-gusua zen eta gogoratzen dut nola joan ziren Debara bere bila eta nola leihotik salto eginda alde egin zuen. Gu umeak ginen orduan, eta harrituta entzuten genituen istorio horiek guztiak. Jokin bera Burgosko prozesuan epaitu eta heriotzara zigortu zutenetako bat izan zen. Gure etxean oso gertutik bizi izan zen hori guztia.

Rekalde. 1970ean Burgosko prozesuaren garaian mobilizazio handiak izan ziren Tolosan. Esan daiteke orduan hasi zela nire militantzia. Garai hartan Tolosana



Izaskun Rekaldek bere etxeko ateak, Biarritzen (Lapurdi), ireki dizkio 'Ataria'ri. **J. M.**

paper fabrian egiten nuen lan. Behin epaiketa hasita gogoan dut fabrian protestak egiten hasi ginela. Paper fabrian emakume gazte asko ibiltzen ginen lanean eta baguen kezka eta borrokarako grina. Aldiz gizonezko gehienak adinekoak ziren eta guri oso konformistak iruditzen zitzaizkigun. Epaiketa hasi zen egunean mobilizazio bat egin zen eta jendea elkartu zen gure lantegiaren aurrean. Emakumeak prest geunden lana utzi eta haiekin batera joateko, baina gure lankide gizonezkoek erreparoa zuten kalera ateratzeko. Azkenean, iskanbilarik ez zutela nahi eta nagusiek beraiek esan ziguten lana uzteko. Mobilizazioarekin bat egin eta fabrikaz fabrika ibilbidea hasi genuen, jende mordoxka bat bildu zen arte. Egunean zehar gauzak normal xamar joan ziren, baina iluntzerako

«Errepresio
bortitza zen,
1970etik 1975era
eguneroko ogia
ziren atxilotetak»
IZASKUN REKALDE

guardia zibilak kuarteletik jaisten hasi ziren. Memorian gordeta daukat nola ematen ziguten cetme fusilen kulatekin. Hainbeste jende batu zen ezin zutela denen aurka egin. Gainezka egin zien egoerak. Hurrengo egunetan polizia gehiago etorri zen eta gauzak okertzen hasi ziren. Errepresioa latzagoa izan zen.

Garaialde. Gu gaztetxoak izanik, Burgosko prozesuaren egun haietan, zer okurrituko eta greba egitea eskolan! Beranduago 1973. urte inguruan hilabeteak iraun zituen greba bat egin zen Tolosaldean eta oroitzen naiz kaxa amankomun bat sortu zela grebalaria laguntzeko.

Rekalde. Bai, 1973 urte ingurua izango zen. Tolosan atxiloteta izugarri pila egin zituzten. Aldiro 10-15 pertsona eramaten zituzten. Beldurrez egoten ginen. Errepresio bortitza zegoen. Ni pare bat alditan deitu ninduten kuartelera baina ez ninduten atxilotuta eduki. Euskal festetan eta horrelakoetan parte hartzeagatik hots egiten ziguten deklaratzera. Egia esan, 1970etik 1975era eguneroko ogia ziren atxilotetak eta horregatik erabaki genuen hona Iparralde-
ra etortzea, lagun batzuk atxilotu zituztelako eta bagenekielako atzetik zebilzkigula. Oker ez banago orduan atxilotu zuten lehen aldiz nire anaia Anjel.

Garaialde. 1975ean nire ahizpa batek ere ihes egin behar izan zuen. Ordurako aitaren aurkako lehen ekin-tza hura gertatua zen. Abertzale, euskaltzale eta independentista porrokatua, EAJkoa zen aita. Herrian norbaitek zabaldu zuen «txibatoa» zela eta 1972an bonba bat jarri zioten taxian. Hori zabaldu zuenak jakingo du zer interes zituen horretarako, edota zer etekin lortu nahi zuen begiradak gure aitarengana desbideratuta. Baina guri kalte ikaragarria ekarri zigun.

Duela zazpi urte lortu nuen Ferro-leko artxibategitik gertakari haien txosten literala, baina han ez da argitzen nork jarri zuen bonba. Euskal Memoriak bere webgunean duen dokumentazio sailean, bonbarena Gerra Zikinaren atalean jasotzen du eta ekintzailea ezezaguna dela dio.

Rekalde. Bai nahasmendua ikaragarria zen garai hartan eta auzi asko argitu gabe geratu dira. Pentsa, 1976an, berriz ere muga pasa, eta Segoviako ihesean lagundu genuen kideak eta biok. Han harrapatu gintuzten eta ia urtebete Madrilén eduki ninduten preso, Yeseriasen. Fidantza ordainduta atera nintzen, 1977ko amnistia orokorraren bezperetan. Hala ere, auzi horren inguruko epaiketak ez da egin sekula. Gauzak ez ziren sobera aldatu Franco hil eta gero ere.

Garaialde. Franco hil eta sei urtera hil zuten gure aita 1982ko urtarilaren 1etik 2rako gauean, 60 urte bete berri zituela. Triple A delako taldeak hartu zuen erailketa bere gain. Ikertu gabe geratu da aitarena. Iruditzen zait guri bezala beste askori pasa zaiela eta ezkutuan dauden egiak itzaletik argitara ateratzea beharrezkoa dela. Gatazkaren barruan bizi izandako sufrimendu askok eta askok ezkutuan diraute oraindik, ezagutzen ez ditugulako edo nahita estaliak izan direlako.

ERREPRESIOAZ

Rekalde. Segoviako iheseko hartan atxilotu nindutenean Espinaleko kuartelera eraman ninduten aurrena. Guardia zibilek, beti bezala, zakar hartu ninduten. Egoera oso larria zela esan beharra dago, gure kide bat hil zutelako eta beste bat larri zauritu. Baldintza txarretan eduki gintuzten han: lurrean botata egin behar izaten genuen lo eta berogailuari eskuburdi-nekin lotuta egoten ginen. Komunera ere guardia zibilek laguntzen gintuzten. Jende asko ginen hasieran, baina gero ihes egin zuten presoak berriro barrura sartu zituzten eta Iruñera eraman ninduten ni. Han nire kideari elektrodoak nola jartzen zizkieten ikusi ahal izan nuen. Niri ez zidaten horrelakorik egin. Horrelakorik egin ez dizutenez pentsatzen duzu ez zaituztela hain gaizki tratatu. Eragin dizkizuten torturak hainbestekoak izan ez direla pentsatzera iristen zara. Gogoan dut urte batzuk beranduago kide bati gertatutakoa; hain zegoen nahasita atxiloketaren ondoren ez zekiela zer gertatu zen polizia etxe barruan, sinetsita zegoen haurdun geratu zela.

Garaialde. Emakumeenganako errepresioa herri honetan izugarria izan da. Gaur egun, oraindik ere jipoitzen gaituzte, bortxatzen gaituzte eta akabatu ere



Izaskun Rekalde Goikoetxea

Tolosa, 1947. Tolosana paper fabrian hasi zen lanean. 70ko hamarkada hasieran hasi zen militantzia politikoa. 1976an Segoviako ihesean parte hartu eta atxilotu egin zuten. Urtebete eman zuten Madrilén preso eta handik bueltan Iparraldea hartu zuen bizileku. 1987an errefuxiatuen aurkako polizia operazioan atxilotu zuten eta baita 1992an ere. Bi alaben ama da eta Komunikazio ikasketak eginak ditu.

bai. Gizarteak hori egiten badu, indar errepresiboek hartuko ez dute ba bortizkeria mota espezifiko bat emakumeen kontra! Noski baietz. Torturen atzean izen-abizenak daude, pertsonak daude, inoiz osatuko ez den jendea dago. 130 tortura kasu baino ez dute izan aitortza ofiziala. Izan diren epaiketetan kondenatuak izan diren gutxi horiek ordea non daude? Denak daude kategoria gehiago emanda, ohera jasota eta kartzelatik ia pasa ere egin gabe. Inpunitate osoan. Nik ez dakit zenbat aldiz atxilotu nauten, baina behin bakarrik pasa naiz Audientzia Nazionaletik. Erabat dohainekoa izan zen gainera. Lege antiterrorista aplikatu zidaten, interrogatu, gainera neraman guztia kendu zidaten eta gero nirea zen hori erreklamatzekoan ezinezkoa zen ez baitzegoen inon atxiloketaren konstantziarik.

Rekalde. Nire etxera etorri izan dira, hartu dute dirua, hartu dute hau eta bestea. Bi egun polizia etxean pasa eta gero prozesu horrek ez du segidarik izan.



Pilar Garaialde Salsamendi

Alegia, 1957. Bere aitari ETAk bonba bat jarri zion 1972an eta 10 urte beranduago Triple A-k hil zuen tiroz. 1980an atxilotu, torturatu eta kondenatu egin zuten Komando Autonomoetako kide gisa. Jaioterrian Herri Batasuneko zinegotzi izan zen 1987tik 1991ra eta urtebete eman zuen Urugain euskal errefuxiatuen sostengu politikoan. Egiari Zor fundazioan eta Tolosako Asanblada Feministan dabil egun.

Kalean eta kendu dizuten hori gabe uzten zaituzte. Ez duzu inolako erantzunik jasotzen. Pentsa ezazu egoera. Nik bi alaba izan ditut eta nik bakarrik hezi ditut, horrelako presiopean gainera. 1987an ni hemen errefuxiatu nengoela egin zuten sarekada handi hartan adibidez, gure umeak gurekin batera eraman zituzten polizia etxeetara. Nire umeek bi urte eskas zituzten. Izugarria izan zen. 200 lagun inguru atxilotu gintuzten. Gizonezko gehienak Espainiaratu egin zituzten. Guretzat oso bortitza izan zen. Oso gutxi izan ginen hemen geratu ginenak, haurrak geneuzkanak eta gutxi asko gehiago.

Garaialde. Razzia bat izan zen. Okurritu zitzaizkien guztiak atxilotu zituzten. Hori etorri zen GAL bukatu ondoren. Norbaitek esango zien: «Honekin bukatu ezazue faborez, oso agerikoa da eta». Orduan zer okurrituko eta modu horretara jokatzeko hasi ziren.

Rekalde. Errefuxiatuen eta haien sostenguan zebiltzan pertsonen aurkakoa izan zen 1987koa. Horren

aurretik nik errefuxiatu politiko gisa nire aitortza nuen. Gero atxilotetaren ondoren Britainian konfinatu nahi izan ninduten. Horrelakoetan soinean zeneramakinarekin uzten zituzten han, bakarrik, inor ezagutu gabe eta zuk topatu behar izaten zenuen alojamendua eta lana. Nik desobedientzia ariketa egin eta Euskal Herrian geratu nintzen. Nora joan behar nuen bi ume txikirekin? Paperik gabe geratu nintzen, baina behintzat Biarritzen banuen elkartasun sare bat alboan.

Garaialde. Mitterranden garaian Frantziako Estatu hasi zenean errefuxiatu karnetak banatzen, erabateko klandestinitatetik beren burua azaltzen hasi zen jendea. Zentsu hori errefuxiatuen aurka egiteko baliatu zuten gerora. Polizia frantsesak errefuxiatuen inguruko informazioa pasatzen zion GALi, gero haiek atentatuak egin zituzten. Nire ahizparen aurka ere saiatu ziren. Iparraldera bisitan etorri, bueltakoan kotxearen kontaktuari eman eta askotan duda egiten zenuen ez ote zinen airean aterako.

Rekalde. Pentsa hemen bizi ginenak. Beldur handia sentitzen genuen. Nire haurrak sortu aurreko egunean Baionan lau pertsona hil zituzten Monbar hotelean. 1985ean izan zen hori, baina urte pare bat lehenago Joxi eta Joxean desagertu ziren gu han geundela. Eguneroko kontua genuen hori GALen denboretan.

Garaialde. Ehunka mila lagun gara haien atzaparretatik pasatakoak. Hainbeste gauza gertatu dira herri honetan. Mikel Zabalzarena datorkit burura. Zer izan zen hura! Hainbeste urteren ondoren, oraindik familia horrek ez du inongo aitortza ofizialik jaso. Terriblea da. Mingarria eta etsigarria da frankismo garaiko 9/1968 Sekretu Ofizialen Legea oraindik indargabetuta ez egotea eta egunotan PSOEek eta beste alderdi batzuek egiten dituzten presioak ikustea, 70ko eta 80ko hamarkadako gertakariekin inoiz argirik ikus ez dezaten.

Rekalde. Hau dena euskaldunak izateagatik pasa zaigu, ez beste ezergatik.

Garaialde. Euskaldunak eta ezkertiarak izateagatik. Bortitzago jo dute gure kontra. Boterea zalantzan eta arriskuan jarri ez duenak ez du tamaina horretako bortizkeriarik jaso. Perbertsoagoa eta teknikoagoa izan da gure aurkako errepresioa.

Rekalde. Hala ere pentsatzen dut, haien herra herri honen aurkakoa dela.

BIZIKIDETZAZ

Rekalde. Bizikidetzaz hitz egiten dute, baina presoek kartzelan jarraitzen dute. Eta gainera, ez etxe alboan, hor nonbait dauzkate. Ez dakit noiz arte edukiko dituzten barruan, baina gure herriarentzat hipoteka bat da hori. Ezin dugun normal bizi haiek han dauden bitartean, gure lagunak eta senideak dira. Non dago normaltasuna? Nik Jaen, Sevilla, Segovia, Soria, Martutene, Fleury-Merogis, Osny... bisitatu ditut. Eta nik bezala Euskal Herrian beste jende askok. Duela 40 urte bezala jarraitzen dugu.

Garaialde. Orain dela hamar urte ETak bere aktibitatea utzi eta 2017an armak entregatu eta gero, kartzela politika dena izatea oraindik ere grabeagoa dela uste dut. Duela 40 urte zena baino grabeagoa. Estatua da bere biztanleria zaindu behar duena eta berme batzuk eman behar dizkiona eta Espainiako eta Frantziako estatuek hori puskatu dute. Euren legedi arrunta aplikatzeko baino ez zaie eskatzen. Lege-di arrunt hori aplikatuz gero, euskal presoak ez lirakeke egongo dauden lekuan eta ez lirakeke egongo preso hainbeste denboran.

Rekalde. Aktibitate armatua zegoen denboran esaten zuten utziz gero dena lortu zitekeela, beste medio batzuk erabilia. ETak existituko balu bezala jarraitzen dute ordea. Momentu honetan eraso baten gisakoa sumatzen dut estatuen aldetik. Ikusi besterik ez dago presoeng ongi etorrien harira muntatzen ari diren diskurtsoa. Fleury-Merogisen preso eduki ninduten lau hilabetez, 1992an. Atera nintzenez, Biarritzeko aireportuan jendea zegoen niri harrera egiten. Lagunak eta familia. Inork ez zuen ezer esan horren kontra. Duela 30 urteko kontuez ari naiz. Gaur egun, berriz, kondaira moduko bat osatu dute horren inguruan ulertzen ez dudana. Covitek edo Voxek esaten dute ekitaldi horiekin biktimak iraintzen direla. Zerikusirik ba al du gauza batek bestea-

«Umiliatu egiten gaituzte, birbiktimizatu eta politikoki erabili»

PILAR GARAIALDE



rekin? Herri honetan, edo beste edozeinetan, kartzelatik atera edo erbestetik datorrenari ongi etorria egitea gauza normala da. Ezin dute senarra, alaba, laguna edo bizilaguna etxera bueltatu delako sentitzen dugun poza ezabatu. Hori ezin digute kendu.

Garaialde. Begira azkeneko asteetan Antonio Asuncion, Rafael Vera, Ramon Jauregi edota Villarejok esan dituztenak. Indarkeriaren apologia argi eta garbi baten aurrean zer egin dute instituzioek eta alderdi politikoek? Isilik egon. Mutu geratu da sektore politiko eta instituzional garrantzitsu bat. Lotsagarria, etsigarria eta izugarri hipokrita izan da jokaera hori. Eta hori egiten ari diren aldiro, babesa ematen diete hori egin zutenei, inpunitateari bide



Izaskun Rekalderen etxe atarian,
Pilar Garaialde eta Rekalde bera.
J. MIRANDA

«Alde honetan ez
gara lau biktima
bakarrik izan,
herri oso bat izan
da jazarri dena»
IZASKUN REKALDE

ematen diote eta gu umiliatzen ari dira. Ezin dira zinikoagoak izan. Esaten dute haiek direla etika politikoaren gordailu eta beraiek ezartzen dute etika politiko horren maila.

Rekalde. Etika politiko eta demokratikoaren bermeztzat dute euren burua bai.

Garaialde. Besteek zer egin behar duten esaten jarduten dute. Besteek egiten dutenaren laurdena egingo balute ez litzateke gutxi. Izan ere, guk ez al dugu sentimendurik? Umiliatu egiten gaituzte, birbiktimitatu eta politikoki erabili. Askok gara biktimak, askotarikoak, eta modu askotako sentimenduak dauzkagu. Guri eta gure senitartekoei eskubideak bortizki urratu izanak sortutako mina gurea da, intimoa, gutako bakoitzarena eta gurekin egongo da betirako.

Gure eta gure senitartekoen eskubideak urratu dituen estatua izan da, hain zuzen ere herritarron eskubideak zaintzeko mandatua duen hori bera. Horrek gure mina eta babesgabetasun sentrazioa areagotu baino ez du egiten.

Rekalde. Aurrekoan alderdi sozialistako Andueza entzun nuen legebiltzarrean. EH Bilduko parlamentariari eskatuz argitu ditzaten ETaren ekintzak. Horrelako hizkuntza erabiltzen dute parlamentuan. Eta haiek ez dute beregain hartzen beren jendeak egin duena.

Garaialde. Memoria ariketa bat egin nahi dut, zeren askotan zifra-dantza izugarria egiten da. Uste dut horretan ere, jolasean dabiltzala eta arduradun politikoek ez dutela zorrotasun minimoa ere erakusten. Badirudi berdin zaiela dena. Estatuko indarkeriak azkeneko 60 urteetan Frantziako eta Espainiako estatuek eragin dituen 366 hildakoetatik 91 bakarrik daukate nolabaiteko aitorten ofiziala. Ez da hori bakarrik

estatuen indarkeria. Estatuek antolatu dituzte indar parapolizialak eta direnak eta ez direnak egin dituzte: erailketak, zaurituak, exekuzio sumarisimoak, torturak... Zaurituen kasuan ez da zentsurik ere egin inoiz. Begira ze errelato eman nahi den. Ez da egia jakin nahi eta errelatoa aldatu nahi dute. Erabat aldatu, gainera.

Rekalde. Gure eskutan dago beste errelato bat egitea. Nire kasuan niri gertatu zaidana baino gehiago da Euskal Herriari gertatzen ari zaiona. Nire herria da biktima. Azken boladan ikusten dugu hemengo instituzioen kolaborazioa niretzat beste ezer baino mingarriagoa da. Ikustea zenbat gauza gertatu diren eta lau biktimek baino ez izatea aitortza. Beste guztia existituko ez balitz bezala jokatzeko dute. Eta alde

honetan ez gara lau biktima bakarrik izan, herri oso bat izan da errepresioa jasan duena.

Garaialde. Guk ez dugu biktima izatea aukeratu, izatea egokitu zaigu. Biktima asko gara eta mota askotako biolentzia jaso dugu. Gure etxean, noski, larriena aitaren eraiketa izan da. Hori baino larriagoa, ez dakit zer dagoen. Desagerpena seguruena. Naparraren kasua etortzen zait gogora, adibidez.

EZ ERREPIKATZEKO BERMEAZ

Rekalde. Nire ustez errepresioa ez da soilik kartzela, edo tortura, edo hilketa; niretzat desinformazioa ere herri hau ezereztatzeke modu bat da. Manipulazioa argia da. Telebista pizten duzu eta dena da turismoa. Saltzen dugu gure herria puskaka eta gu zer garen ez da inon adierazten. Hori niretzat mingarria da. Beste modu batera baina gerra berdina mantentzen dute gure kontra.

Garaialde. Hor dago errelatoen arteko borroka. Komunikabideek informazioa ematerako garaian kode deontologiko bat jarraitu behar dute, baina ikusten ari gara nola nahasten duten informazioa eta iritzia. Informazioa balitz bezala ematen dute iritzia, badakitelako horrekin manipulatzeko dela pentsamendua. Pentsamendu kritikoa ezabatu nahi dute.

«Inork ez luke inolako biktimen sufrimendua kapitalizatzen saiatu behar»

PILAR GARAIALDE

Rekalde. Nik beharra dut gauzak aldatzeko. Presoak kaleratzea lehentasuna dela uste dut. Hor borrokatu behar gara. Nora doa herri hau haiek barruan daudela? Ezin ditugu han utzi. Hori eta euskara, euskara eta euskara. Badugu hor beste hipoteka bat eta gure hizkuntzaren alde borrokatzen ez bagara herri hau desagertu egingo da. Gu militantzian hasi ginenean ez ginen bakarrik Francoren aurka edo errepresioaren aurka altxatu. Nahi genuen gure herria burujabea izatea. Eta horretarako sortu ziren ikastolak eta beste mila gauza. Ezin dugu hori guztia desagertzen utzi. Borrokatu behar dugu hori horrela izan ez dadin. Badugu horretarako sena, jardun gara gauza askoren alde eta orain mantendu behar dugu gure herriaren eta hizkuntzaren aldeko borroka.

Garaialde. Borroka horietako bat gatazkaren konponbidean urratsak ematea dela uste dut. Hasteko biktima guztiak berdintasunean tratatu beharko gintuzkete. Estatuak onartu beharko luke indarkeriaren erabilerran izan duen ardura. Uste dut bizikidetza eraikitzeke justizia eredu berria beharrezkoa dela: zigorra beharrean egia helburua duena, gatazka gehiago luzatu ez dadin, honen ondorioak betikotu ez daitezen eta konponbideak oztopo gehiago izan ez ditzan. Nik, bukatzeko, eskatuko nuke ez gaitzabela erabili biktimak etekin politikorako, hortik kanpora utz gaitzabela. Inork ez luke inolako biktimaren sufrimendua kapitalizatzen saiatu behar, besteak beste, gutako bakoitzarena baino ez delako min hori. Biktimok ideologi eta egoera askotarikoak gara eta ezin da gutaz hitz egin bloke homogeneo bat bagina bezala. Biktima izaerak, dena den, ez digu arrazoi politiko handiagorik ematen, ezta nagusitasun etikorik ere. Bestetik, gatazka politikoaren testuinguruan indarkeri kasu anitzek eragindako ondorioei konponbide integrala planteatzea beharrezkoa ikusten dut. Eta azkenik, elkarbizitzan bene-benetan sinesten badugu, benetan elkarriketa demokratikoa eraiki nahi badugu, ezin da oharkabea pasa gatazka politikoak hor dirauela eta gatazka horri konponbidea eman behar zaiola.

1987an errefuxiatuen aurkako polizia operazioan Rekalde atxilotu zuten unea, alaba besoetan zuela. ATARIA



Gure gorputzak memoria bizidunak dira, aitortzaren bila

Nenake Txaparte Nieve

lheslari politikoa, kazetari feminista



Memoria egitea ez datza lehena oroitzean, ez-kutuan dirauten eta gordearazi nahi diren biolentziak agertaraztean baizik. Ezin dugu orainik eraiki, lehenaldian bizitako injustizia aitortzen ez duen jendartean eta are gutxiago, hori egin duten estatuek oraindik ere bortxa hori egiteko makineria martxan dutenean. Osatze kolektiboa oinarri duen geroan, zer gertatu den jakin behar da eta berriro errepikatuko ez dela bermatzeko zimenduak jarri. Horretarako, gertatutakoa irakurri behar da. Eta memoria idazketa hori ezin dute gizonezkoek gure izenean egin, ez eta estatu instituzioek ere, garaile/garaituen eskeman. Estatu indarkeria biziraun dugunok eta eraildako senideek badugu zer kontatu eta zehatz-mehatz bizitako zapalkuntza eta biolentzia espezifikoetatik eman nahi dugu lekukotasuna.

Espainiako Estatuko polizia etxeetan tortura sistematikoa erabili da inpunitate osoz euskaldunon aurka. Emakumeon* kasuan jazarpen politiko eta estatu indarkeriak jite sexista izan du. Madrilgo polizia etxeetan gure emakume gorputzak guda zelai patriarkalak bihurtu dituzte, askatasunaren alde borrokatzea erabaki genuelako batetik eta rol patriarkalak apurtu genituelako bestetik. Torturatzailen pentsamenduan gu bidelagun edo zaintzaile izan behar genuen, ez borrokatzea erabaki genuen subjektuak. Horren zigorra, tortura sexista izan da, eta bortxaketa eta erailketa, indarkeria patriarkal horren punta. Espetxeetan ere otzan eta esaneko hezi nahi gaituzte indarrez, gizonek gizonentzat egindako eremuetan. Gure emakume* gorputzek tatuaiak dituzte,

ez tintarekin eginak indarkeria anitzekin baizik. Markatu gaitu estatu indarkeriak, kontatu ditzagun gure gorputzetan pilatutako biolentziak memoria kolektiboa egiteko.

Testigantzak publiko egitea emakume torturatuak boteretzeko tresna bat da. Baita, historia ofizialean lekurik izan ez duen memoria feminista txertatzeko aukera ere. Emakume batentzat hitza hartzea (historikoki zapaldu-tako beste subjektuentzat bezala) nolabait, subjektu zapaltaile-zapalduaren egitura hori urratzeko modu bat da. Horregatik, testigantza ariketa kolektibo eta boteretze politiko bezala hartzen dugu. Ez da nahikoa kontakizuna agertoki publikoan plazaratzea inork ez badu gure kontakizuna entzun, irakurri edo kontuan hartzen. Horregatik, beharrezkoa da mugimendu feministatik testigantza horien euskarri eta zabaltzeko ardura izatea.

Euskal Herrian kontakizun bakarra jazartzeko atakan eta lehian gauden honetan, beharrezkoa da errebindikaziotik memoria kolektiboa egitea. Memoria feministak bide ematen digu, denbora luzez sistema patriarkal edo testuinguru zapaltzaileen ondorioz lekurik izan ez duten euskal emakumeen kontakizunak gatazkaren irakurketa kolektiboan txertatzeko. Gure minen/biolentzien isiltasuna jada ez da aukera bat. Ekintza feministak, justizia egiteko bidean hitza hartzeko betebeharra dakar, biziraun dugunongatik eta hil dituztenengatik. Gure ahotsekin memoria kolektiboa osatzea da euskal gatazkaren konponbidean ekarpena. Eman diezaiozun bidea, garatu dezagun elkarrekin memoria historiko feminista!



Gurea,
Kalitatea

Azaroaren 19an zabalik izango da Anoetan Lizarraga harategia
(lehengo Juanjo harategia)

Herriko enparantza 2, 20270 Anoeta • 943651194

**IRAGARRI HEMEN
ETA ESKUALDEAK
BUELTATUKO DIZU**



JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN

publi@ataria.eus / 661 678 818

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan



zozketak

**Atarikideentzat bost sarrera
bikoitz ditugu**

- Iñaki Aristeta (Aduna)
- Jon Asurabarrena (Alegia)
- Arantxa Zinkunegi (Tolosa)
- Joxe Ramon Zubeldia (Baliarrein)
- Jabi Zubizarreta (Tolosa)

**Sherpa.ai aizkolari xapelketa
nagusiko finalerako** Azaroak 21, 12:00etan,
Bilbao Arena Miribilla.



**Atarikideentzat
bi sarrera ditugu**



- Orkatz Goenaga (Tolosa)

**Acunsa Gipuzkoa -
Basquet Girona**

partida ikusteko
Azaroak 21, 18:00etan,
Donostia Arenan.

ATARIA jarriko da harremanetan



**MADDI
ETXEBERRIA**
DIETISTA
NUTRIZIONISTA
@BEGAONEGIN

Abendura begira

Abendua dator. Hilabete kritiko, oso. Errutinatik irtetea; otordu asko etxetik kanpo, gozo asko, konpromiso asko... Abenduko zubia, enpresako otorduak eta Gabonak. Nolako *konboa*, ezta?

Jende askok dio beldurra abenduari: kontrol ezari eta loditzeari. Gertatu dakigukeen okerrean loditzea izango balitz bezala (gizarteak hori sinestarazten digulako). Baina esan behar dizut normala dela beldur hori izatea; oso errotuta dauzkagun sinesmenak direlako. Beraz, aholku pare bat nahi abendua hobeto kudeatzeko?

Lehenik eta behin, garrantzitsua iruditzen zait egoera erlatibizatzen jakitea. Eta beldurrak gaingitzen zaituela sentitzen baduzu, agian une egokia da laguntza profesionala eskatzeko. Beldur handi horrek, elikadurarekin erlazio gorabeheratsu bat islatu edo ezkutatu dezake, eta bizitza gozatzeko, garrantzitsua da elikadurarekin erlazio osasuntsu bat izatea.

Honekin gogorarazi nahi dizut, badaezpada, eta piztia arraro bat sentitzen bazara, oso jende gutxi dagoela elikadurarekin erlazio osasuntsu bat duena. Izan ere, erlazio osasuntsu bat izatea ez da bakarrik elikadura-asaldura bat ez izatea. Elikadurarekin erlazio osasuntsu bat izatea elikagaiez gozatzea da, elikagaiak on edo txar gisa ez sailkatzea, errurik sentitu gabe jatea (baita elikagai prozesatuak edo «ez-osasuntsu» gisa sailkatzen ditugun horiek ere), gehiegi jaten dugunetan ez konpentsatzea (kirol gehiago eginez edo baraua eginez)... Ziur nago zuk horrelako zerbait egiten duzula edo egin duzula. Lasai, ez naiz zu epaitzen ari. Nik ere egin dut, eta egiten dut, batzuetan. Hau ikasketa bat da, lasterketa luze bat, eta pixkanaka hobetzen joatea da koska.

Dena edo ezer ere ez pentsamendu dikotomikoa oso ohikoa da gure gizarteak; zuria ala beltza. Honen aurrean, jendeak abenduan erabateko kontrol ezara jotzeko joera dauka; urte osoan zeharreko murrizke-

tak ahaztu eta kontrakoa egitekoa. Turroi apur bat jan ordez tabletak binaka jan, egunerokotasunean polboroiak sartu, frijituekin goraino bete, alkoholetan ito... Kontua da, uste dutela, behin elikagai «ez-osasuntsuak» jaten hasita, berdin diola. Zuria edo beltza. Eta gero urtarrilean etorri ohi dira dieta murriztaileak, kulpak, baskularekin borrokak eta helburu irrealak.

Honekin zer esan nahi dut, ez dugula turroirik, polboroirik, frijiturik edo alkoholik kontsumitu behar? Inolaz ere ez. Esan nahi dudana da, ikasi behar dugula turroiak, polboroiak, frijituak eta alkohola kulparik gabe kontsumitzen, eta ikasi behar dugula dena ala ezer ez dikotomiatik irteten. Izan ere, ziur nago polboroi batekin gozatuko duzula, edo batzuekin; baina hoge polboroi jarraian jatea, mundua amaituko balitz bezala eta jaten duzunaz ia kontziente ere izan gabe ez da elikaduraz gozatzea, betekada bat hartzea da.

Garrantzitsua da abendua hilabete soziala dela go-goan izatea. Eta ez da erraza, noski. Baina pixkanaka hastearen kontua da. Eta ahaztu aurretik. Jende askok joera du Gabonetako otorduetara joan aurretik ez gosaltzekoa. Gosez joan eta gehiago gozatzeko eta jateko. Baina kasu horietan, antsietatea handitzen da, ez diegu gure gorputzaren seinaleei kasu egiten eta gero tripako mina izaten dugu sarritan, asko eta azkar jan dugulako. Ez dezagun halakorik egin. Gabonak ez dira «debekatutako elikagaiak» jateko aukera bakarra.

Batetik, ez delako debekatutako elikagairik existitzen, eta horretaz gain, jaten duzun horrekin elikatzen duzun bakarra ez delako gorputza. Hau da, posible da zure familian Gabonetan plater zehatz bat jateko ohitura egotea, pisu familiarra duena. Tradizioaren parte dena, familiako kideren baten oroime- nez egiten dena. Eta kasu horretan, ekintza konkretu hori elikagaia bera baino garrantzitsuagoa da.

Beraz, gozatu abendua; egin zure gorputzak eskatzen dizun hori, mugitu zaitez gehien gustatzen zai- zun kirol horrekin, elkartu maite dituzunekin eta goza- tu platerean jarritakoaz. Eta ez ahaztu, gizentzen ba- duzu, ez duzula pertsona bezala duzun balioa galtzen.



**MANEX
GURRUTXAGA
MUÑAGORRI
SOZIOLOGOA**

Glasgowko fartsa eta klima aldaketa

Glasgown ospatu den Klima Aldaketari Buruzko Konferentziak eta horren bueltako albisteek hartu dituzte azken asteetan komunikabideen lerroburu nagusiak. Glasgowkoa gisa horretako hogeita seigarren konferentzia izan da 1992az geroztik, Nazio Batuen Erakundeak klima aldaketari aurre egiteko konbentzioa sortu zuenetik. Azken hamarkadetan,

egitasmo horren bueltan, Konferentzia, hitzarmen, politikari, protokolo eta bilkura asko izan badira ere, guztiak antzerki erraldoi baten parte izan dira.

Ez, ez da hau azken mendeetan giza-antolamendu kapitalistak eragin duen klima aldaketa eta bere ondorio lazgarriak zalantzan jartzeko zutabea, horren aurka ari direla dioten gobernu eta burgesiaren praktika kriminalak seinaltatzekoa baizik.

Glasgowkoa bezalako konferentzien bitartez, egoeraren erantzuleak diren berberak klima aldaketaren aurka ari direnaren itxura eman nahi dute. Gainera, gizakiaren biziraupena bera ere zalantzan jarri duen arazo globalari aurre egin nahiko baliote beraien negoziokoak eta boterea areagotzeko helburu bakarrarekin egingo lukete eta inolaz ere ez motibazio etiko, emantzipatzaile edo aurrerakoiak eraginda. Esan nahi da, trantsizio energetikoa sustatzekotan, adibidez, horrek ireki ditzaken ekoizpen ziklo eta merkatu berriengatik izango da.

Funtzionamendu-logika horrek kokatu gaitu amildegiaren ertzean. Kapitalmetaketa amaigabea eta plusbalioaren ekoizpena zentroan daukan gizarte ereduak sortu du egoera hori, mendeetan zehar luzatu den gutxiengo baten interes partikularrak ongizate kolektiboari gainjartzeak planetaren biziraupena bera ere zalantzan jartzea eragin du.

Erantzuleak beraiek dira eta arazoari irtenbidea langile klaseak eman diezaioke, bera baita bere emantzipazioarekin mundu berri baten hazia jar dezaken giza-taldea. Irtenbidea, baina, kontsumoaren esparruan zein norbanakoen eguneroko keinu txikietan kokatzen dutenak oker daude. Hori boteredunen intereseko borroka modua da, bidegurutze historiko hau ez dugu kontsumo indibiduala moldatuz gaindituko.

Gakoa ekoizpenean dago eta ez kontsumoan, boterearen auzia da antzerki erraldoi horrek ezkutatu nahi diguna. Alegia, ekoizpenaren gaineko kontrola nork eta zertarako duen seinaltatu ezean eta ekoizpena modu arrazionalen, berdintasunean eta naturarekiko modu sostengarrian antolatzeko gaitasuna duen mugimendu politikoa eratu ezean arazoaren oinarriari erreparatu gabe jarraituko dugu, gizateria arazo hori eta etortzeke dauden beste hainbeste behin eta berriz errepikatzen kondentatuz.

Glasgowkoa bezalako konferentzien bitartez, egoeraren erantzuleak diren berberak klima aldaketaren aurka ari direnaren itxura eman nahi dute



**MADDI AMIANO
ALLUE
IRAKASLEA**

Udazken zaporea

Udazkeneko hosto bakoitza udaberriko lore bakoitza bezain polita

da. Kolore beroen gama guztia aurki dezakezu erenguan, pagoaren hosto ximurretatik hasi, eta laran-

rrigarria nola azaltzen didan guztia, berarentzat hostoa alde umelak eta ez hain umelak osatzen dute, hauskorak eta ez hain hauskorak... Gauza askorengandik miresten dut Mattin.

Tamalez azken boladan jada ahantziak zituen eta itsu geratu zeneko amets gaiztoek gain hartu dute

Badaki emozio guztiek egiten digutela guztioi bisita noizean behin, eta emozio bakoitza gurekin betiko gorde eta aldarte bihurtu beharrean, zer esatera datozen entzun, eta joaten utzi behar zaiela ere.

ja, gorritzat zein marroi koloredunetara. Horrelakoe-tan gogoko dut paseoan ibiltzea, tarteka bisitan datorkigun hego haizeak zuhaitzak biluzten dituen bitartean. Haizeak gehien astintzen duen zuhaitzari begiratzen diot, hosto bakoitzaren norabidean galduz, bakoitza nora iritsiko pentsatuz. Txoriek goxotasun bila alde egin duten honetan, onddoak bisitan datozkigun garaia da honakoa.

Lehen ahaztu zait esatea, baina Mattin eta ni lagun minak gara. Txiki-txikitatut aurkitu genuen elkarren konexioa. Eta oso jende gutxiarekin egin ditzaket mendian, norabiderik gabeko ibilaldiak. Garaile zein irabazlerik gabekoak, hasiera zein amaiera zehaztugabekoak. Dena den, pena handia ematen dit Mattinek udazkenaren koloreak ikusi ahal ez izateak. Gogoan dituela esaten dit berak beti, eta sano sinesten diot; bost urterekin itsu geratu izanak ez baitizkio udazkenaren koloreak zein formak ahantziarazi. Ha-

berarengan. Egunak daramatza izerdi patsetan esnatuz, usain zein zarata jasanezinekin egiten du amets, eta sarritan egunean zehar iraunarazten dio ezinegon horrek. Mattinek asko daki emozioen inguruan, ederki identifikatzen ditu, eta ondo asko daki horietan egoten. Triste dagoenean triste, eta alai dagoenean alai, beldur denean beldur... Gogoko dut bera horregatik ere. Badaki emozio guztiek egiten digutela guztioi bisita noizean behin, eta emozio bakoitza gurekin betiko gorde eta aldarte bihurtu beharrean, zer esatera datozen entzun, eta joaten utzi behar zaiela ere.

Batzuetan ordea, ez da erraza egiten, eta zurrunbiloan sartzeraino itxaroten dugu benetan behar dugun laguntza eskatu aurretik, eta hau laguntza eskatzera ausartzen direnen kasuan.

Tarteka begiak itxi, eta barrenak behatuko bagenitu, zu eta ni agian, Mattinen pareko izango ginatke...

AGENDA

OSTIRALA AZAROAK 19

ADUNA

ELKARTASUN EKITALDIA

12:30. Elkartasun ekitaldia. Herriko furgoneta zaharraren eskaintza Saharar Errefuxiatu Kanpamenduetako biztanleei. Herriko plazan.

UMOREZKO EMANALDIA

21:30. *Luze edo motz* umorezko emanaldia. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Herriko plazan, baina euria eginez gero elizan.

ALEGIA

OINETAKO BILKETA

17:00. Plazan egingo dute oineta-koen bilketa. Zaporeak Gobernu Kanpoko elkarteak sustatu du ekimena, eta ahalik eta bota, zapatila eta zapata gehien biltzea dute helburu.

A25

18:00-20:00. *Egungo kultura progresista. Emakumeon ahalizapenak ala indarkeriaren normalizazioa?* Erakusketa, plazako arkupean. Itaiak antolatuta.

ALKIZA

HITZALDIA

19:00. *Klima larrialdia eta basoen ekarpena* hitzaldia, Garazi Auzmendi ikertzaile eta komunikatzailearen eskutik, Fagus Alkiza interpretazio zentroan.

AMEZKETA

HILABETE KULTURALA

18:00. Jakoba Errekondoren hitzaldia, kultur etxean.

20:00. Talo jatea Larrunari frontoian, DBH 4. mailakoen eskutik.

ANOETA

DEATH CAFE

18:00. Death-Cafe: Heriotzaz eta



doluz hitz egiteko gunea. Gela balioanitzean.

LIBURU AURKEZPENA

18:00. Descontrol argitaletxeko eta Komalen Ciwagazte Kurduen Mugimenduko kideekin batera, *Manifiesto de la juventud* liburuaren aurkezpena antolatu du Donostialdeko Herri Kurduaren Aldeko Plataformak. Gaztetxean.

IKAZTEGIETA

BILERA

18:30. Herriko dendari bizia eman nahian bilera, nolako denda beharko lukeen herriak zehazteko bilera, udaletxe azpiko lokalean.

IRURA

ANTZERKIA

19:00. *Birritan bortxatua* antzez-lana. Gonbidapena eskatzen du. Kulturunean.

LIZARTZA

GAZTEENTZAKO SAIOAK

19:15. Lizartzan gazteentzako saioak 12-17 urtekoentzako dinamizatzaile batekin.

KULTURALDIA

19:00. *Ekologista naiz baina...* Gorka Egiarekin. Kontsumo Jasangarrirako oinarritzako gida praktikoa, udal aretoan.

TOLOSA

TAILERRA

17:30. *Gozogintza osasuntsua. Azukrerik gabea eta beganoa.* Altxoan elkarteak antolatuta. Prezioa: 20 euro (bazkideak 10 euro). Guki ekogunean.

ANTZERKIA

18:00-20:00. Indarkeria matxistaren prebentzioa Antzerki tradizio-nalaren bitartez saioa. Tolosako kultur etxean, Divina Gipuzkoako Emakume Nigeriarren Elkarte Kulturalak antolatuta.

AMALUR JARDUNALDIK

19:30. *Naturaren soinuak.* Carlos de Hita dokumental gidolariak azken lana aurkeztuko du. Kontzertu natural handi baten zatirik onenen hautaketa. Topic-en.

KONTZERTUAK

20:30. Nogen taldearen kontzertua (bonutik kanpo), Leidorren.

22:00. Herdoil Bonberenean izango da.

LARUNBATA AZAROAK 20

ABALTZISKETA

BERTSO AFARIA

Bertsos afaria Unai Mendizabal eta

Iker Zubeldiarekin. Sarrera: 30 euro. Aurrez erostea derrigorrezkoa da, aforo mugatua, Abaltzisketako ostatuan.

ADUNA

KULTUR EGITARAUA

09:30. Adunako mugarriak mendi ibilaldia, Jabier Zabalen eskutik. Herriko plazatik abiatuta.

16:00. Adunako Mus Txapelketa azkarra. Euskal Herriko mus federazioak antolatuta. Txulobi elkar-tean.

16:30. Magia ikuskizuna, Eriz Magoarekin, elizan.

18:30. Kimua dantza kolektiboaren *GenEroa* dantza emanaldia. Herriko plazan, baina euria eginez gero frontoian.

ALKIZA

BISITA GIDATUA

10:00. Harkaiztietako bizilagunak bisita gidatua. Aurrez izena eman behar da: kultura@alkiza.eus edo 688 604 466. 5 euro (alkizarrak eta hamabi urtez azpikoak doan). Plazatik abiatuta.

BALIARRAIN

ANTZERKIA

Cromlech antzezlan, Evaren alabak taldearekin.

IRURA

JOKOAK

10:30. Haurren eskubideen nazio-arteko eguna. Kalaka zurezko jokoak. Goizean zehar hurrek trebetasuna, imajinazioa, zehaztasuna, kontzentrazioa, oreka eta koordinazioa bezalako alderdiak garatu ahal izango dituzte hainbat joko ezberdinen bidez. San Migel plazan, baina euria eginez gero frontoian.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

11:00. Iraulieta / Argibel txondorra piztu. Koldo Jauregi.

18:00. Herri kirolak, frontoian. Banakako Gizonezko Aizkolari Kopako Txapelketa, Binakako

Gizonezkoen txapelketa harria jasotzen eta Binakako Emakumeen txapelketa tronzan.

LIZARTZA

KULTURALDIA

17:00. *Elefantea eta bere lagunak* ipuin kontaketa eta ondoren tren-tza tailerra, kultur gunean.

TOLOSA

TXAPELKETA

XII. Euskal Herriko Frisoi Txapelketa, Ferialekuan.

A25

11:30. *Egungo kultura progresista. Emakumeon ahalduntzea ala indarkeriaren normalizazioa?* erakusketa, Trianguloan. Itaiak antolatuta.

ZIKLOIA

17:00. *Ataungo kondairak*, Monika Arratibel eta Maitane Aizpuruarekin. Umeentzat. Amaroeko auzo-etxean.

KONTZERTUA

22:00. Habi eta Etxekalte Bonberean izango dira. Sarrerak zortzi euroko kostua du.

ZIZURKIL

AIZTONDOKO GAZTE EGUNA

10:30. Street Boulder txapelketa, Joxe Arregi plazan. Izen-ematea momentuan (katu hankak eta magnesioa eraman behar da).

12:30. Aiztondoko mugimendua eta esperientzia politikoak.

14:00. Bazkaria (langabetuek 8 euro eta langileek 12 euro).

Ondoren. Bingo musikatua.

19:30. Distopia elektrotxaranga.

22:00. BassAgain soinu sistema eta No te Crew.

HERRI KIROLAK

17:30. Lasto altxatze txapelketa.

18:00. Gipuzkoako Harri Handien Txapelketa, Intxaur pilotalekuan.

BERTSO IKUSKIZUNA

19:30. Gure plazetan dauden bertsolarien buruak bertso isilak dira. Pello Mari plazan, izen berdina duen bertsolariarena dago. Bertsoa eta harria. Argazkilariaren

begia eta idazlearen eskua batuko ditu Koldo Izagirrek lan honetan. Bertsotan berriz, Peñagarikano eta Maialen Akizu, Intxaur pilotalekuan.

IGANDEA

AZAROAK 21

ADUNA

ARDO DASTAKETA

12:00. HAZIren laguntzarekin ardo dastaketa komentatua, Mikel Garaizabalekin. Udal bulegoan edo liburutegian izena emango duten 30 lagunentzat. Frontoian egingo dute dastaketa.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. Artedramaren *Atzerrian lurra garratz* helduei zuzenduriko antzezlan. Aurora Mora bere instalazio artistikoari azken ikutuak ematen ari da, bere bizitza betirako aldatuko duen deia jasotzen duenean. Posible al da gurea ez den lur batean sustraitzea? Posible, familia eta aberriaren zama gaian dugula, hegaldi propioari ekitea? Eta, gau batean, gure bizitzaren norabidea erabaki beharko bagenu? Sarreraren prezioa 8 euroko da. Gurea antzokian.

AMEZKETA

HILABETE KULTURALA

10:00. *Amezketako ferie*, Larrunari frontoian.

ANOETA

ANTZERKIA

18:00. *35 huts*. Sarrera: 5 euro. Azaroaren 8tik aurrera eskuratu daitezke liburutegian edo auditorioan 30 minutu lehenago. Mikele-sagasti auditorioan eskainiko dute.

LIZARTZA

KULTURALDIA

16:00. *Jokai* jolas kooperatiboak, herriko plazan.

TOLOSA

MENDI IRTEERA

07:30. Lapurdin eta Behe Nafarroan ibiliko dira. Garralda (470 m) eta Ursumendi (678 m) mendiak igoko dituzte. 20,7 kilometro, sei ordu t'erdiko ibilaldia. Bazkideek 13 euro eta bazkideek 15 euro. Informazio gehiago eta izena emateko 3 aukera: *Alpinouzturre.eus*, *info@alpinouzturre.eus* edo 943 65 27 89.

A25. TOLOSAKO ASANBLADA

FEMINISTA

Goizean Mendi irteera Santa Lutziko miserikordia. Elkarteko puntuak:

10:30. Zerkausia.

10:45. Samaniego ikastetxea.

11:45. Santa Lutziko miserikordia.

13:00. Ekitaldia Zerkausian.

14:00. Bazkaria Zerkausian. *Bazkaria etxetik eraman behar da. Sagardo kupela egongo da.

IKAZTEGIETA

XXX. HERRI KROSA

10:45. Herriko haurrak.

11:00. Helduen proba. Sariak, zozketa bereziak eta hamaiketakoa.

ASTELEHENA AZAROAK 22

AMASA-VILLABONA

XEXILI EGUNA

18:30. Xexili eguna ospatzeko: Big Band, Esku soinu taldea, Abesbatza eta musika tailerra. Sarrera doan. Onddo plazan, baina euria eginez gero Gurea antzokian.

ANOETA

XEXILI EGUNA

18:30. Xexili Eguna. Loatzo musika eskolako kontzertua, elizako portikoan.

BERASTEGI

TAILERRA

18:00-20:00. Bihotz biriketako bizkortze teknikak eta desfibrila-

dorea erabiltzen ikasteko tailerra, Osakidetzako langile talde baten eskutik. Aurretik izena eman beharko da.

IRURA

XEXILI EGUNA

18:00. Xexili Eguneke Onintza abesbatzaren kontzertua. Gonbidapena eskatzen du. Loatzo musika eskolak antolatuta. Elizan.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

18:30. *Euskal Herrietako lamien ipuinak*, Juan Kruz Igerabide ipuin kontalariak eskainia, liburutegian.

TOLOSA

JABETZE ESKOLA

15:30. *Emakume margolariak itzalean: Piztu ditzagun argiak!* Leire Markinez Calvo prestatzailearekin. Euskaraz. Matrikulak 5 euroko kostua du. Kultur etxean.

XEXILI EGUNA

19:00. Kalejira egingo du Tolosako Musika Bandak Tolosako Alde Zaharreko kaleetan zehar. Baliteke ohiko ibilbidea zertxobait aldatzea, eta kalejiraren momentu batean, gainera, sorpresa bat emango diete eurentzat oso bereziak diren bi herritarrei.

ZIZURKIL

LIBURUAREN ASTEA

12:00. *Plazida oihartzunaren plaza* ipuinaren aurkezpena.

XEXILI EGUNA

18:30. Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia Joxe Arregi Plazako estalpean: Zizurkilgo ikasleen tailerra, abesbatza eta klarinete taldea arituko dira.

OHARRA. Aldizkaria inprentara bidaltzerako indarrean zegoen eskualdeko agenda da honakoa. Jakina denez COVID-19ak unean uneko aldaketak sortu ditzake.

ZINEMA



SMALLFOOT

Larunbata eta igandea (17:00).
Amasa-Villabona, Gurea.



EL BUEN PATRÓN

Larunbata (19:30 eta 22:00) eta
astelehena (20:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



ERASE UNA VEZ EN EUSKADI

Larunbata (19:30 eta 22:00),
igandea (19:00) eta
astelehena (20:30).

Tolosa, Leidor.



RON DA ERROR

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.

EMOZIOAK TRANSMITITZERA

‘Customs’ ikuskizunaren amerikar bertsioa. **ATARIA**



39. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia inoiz baino indartsuagoa dator bueltan, eta bihar emango zaio hasiera; 65 emanaldi izango dira haur eta helduei zuzenduak hilaren 28a bitartean, eta besteak beste, bi erakusketa berri ere inauguratu dira Tolosako Topic zentroan.

Eneritz Maiz Etxarri

Bihar hasiko da 39. Nazioarteko Txotxongiloen jaialdia, Tolosan. Zirrarak lantzen dituzte txotxongiloek eta komunikazioa da sortzen dutena titiritero eta ikusleen artean. Ikusle bakoitzak bere bizipena jasoko du. Haurrentzat bezainbeste direla helduentzat ikuskizunak argitu du Idoia Otegi Topic zentroko zuzendariak. «Magiaren beharra dugu, eta espiritua alaitzeko eta disfrutatzeko beharra dugu. Gauza politak ikusi nahi ditugu, eta ez daukagu pantaila edota telebista bati lotuta egon beharrik», dio.

Ikuskizunak haur eta helduentzat antolatu dituzte, eta eskolako ikasleentzako emanaldiak ere prestatu dituzte. Guztira 65 emanaldi izango dira Tolosan. Horietatik bederatzi ikuskizun publiko guztiari irekiak

eskainiko dira, eta zazpi emanaldi ezberdin ikusteko aukera izango da. Hurrei zuzendutakoak, aldiz, bi ikuskizun ezberdinen sei saio izango dira. Helduei zuzendutakoak bost emanaldi izango dira, sei ikuskizun ezberdinenak.

«Non aukeratua badago, baina badaezpada ezin izan dugu atzerriko konpainia asko ekarri», azaldu du Otegik. «Oraindik ez dakigu zer gertatuko den, eta mugak ere ez daude guk nahi genukeen bezain irekita, eta azken unean gertatu daitekeenaren beldur gara». Otegiren hitzetan antolatu duten jaialdia «oso-oso indartsua» da. laz ezin izan zuten ohiko Titirijai jaialdirik egin, eta aurten «normaltasunera» itzultzeko jaialdia dela esan du, eta guztia «normaltasunez» aurrera eramatea espero dute.

Espainiako Estatuko probintzia ezberdinetako konpainiek bisitatuko dute Tolosa, baina Argentina, Frantzia, Grezia edo Portugaldik ere iritsiko dira Topic eza-gutzeroa. Hamaika autonomia erkidego eta hamabi herrialde elkartuko dituztela kontatu du zuzendariak. Eskualdeko herritarrek «ikuskizun onak ikusteko aukera bakarra da» esanez animatu nahi ditu txotxongi-loak ikustera.

«Emozioak transmitituko dizkiguten gauzak ikusi behar ditugu, ilusioak transmitituko dizkigutenak», esan du Otegi. «Emozioak transmititzen dituzte txotxongiloek, eta begiratzen duten pertsonen arabera emozio horiek ezberdinak izan daitezke. Ez dute mezu bera transmititzen guztientzako, baina mezuak transmititzen dituzte», azpimarratu du.

Batzuek barrea eragingo dute, eta beste batzuek pentsatzera eramango dute ikuslea. Era guztietakoak dira txotxongiloen mezuak. Eta nola ez, ez da haurren kontua txotxongiloena. Publiko osoari zuzendua da-goela azpimarratu nahi izan du behin eta berriz.

Musika, eskultura, pintura, literatura... arte guztiak batzen dituela dio txotxongiloen emanaldiak. «Hemen arte gutxitua edo txikia moduan ikusi da; gutxietsia edo mespretxuz tratatua da, baina beste herrialde askotan titiriteroa estimatua da».

Publikoarekin «eskertuta» azaldu da Otegi: «Oso publiko fidela dugu, eta oso eskertuta gaude dugun publikoari, eta beti erantzun izan dute. Ezin dugu kezatu». Halaber, beti publikoa zaintzen ahalegintzen direla argitu du. «Kalitatea» eskaintzen ahalegintzen dira, eta «beti publikoan pentsatzen dugu, eta onena ekartzen ahalegintzen gara».

Haurrei ere kalitatea eman behar zaiela azpimarratu du, eta haurrentzako direlako ez dela edozer eskaintzen zehaztu du.

Tolosan estreinaldia

Proiektu berezi bat nabarmendu nahi izan du Otegi: *Lau sorkuntza, lau kontinente*. Proiektua txotxongiloen nazioarteko batasunaren, hau da, Unimaren 90. urteurrenaren ai-

tzakia hartuta sortua izan zen. Munduan ikusteko aukera izango den lehen tokia Tolosa da. «Izenak esaten duen moduan, lau sorkuntza eta lau kontinente dira. Gazteentzako antzerki idazketa lehiaketa bat egin zen, eta Marcos Nicolaieswsky brasildarrak irabazi zuen Unima Saria *Customs* izeneko testuagatik, eta gure artean hemen izateko zortea izango dugu», azaldu du Otegi.

Testua Amerika, Asia, Afrika eta Europan ekoiztea zen helburua. «2020an Indonesian, Balin, egitekoa zen Unimaren kongresuan lau bertsioak lau kulturetan ikustea zen helburua», argitu du Otegi. Pandemiagatik ezin izan zuten egin kongresua, eta ezin izan zituzten ikusi lau ikuskizunak.

Iaz ospatu zuten kongresua, baina guztia *online* egin zutenez, ezin izan zituzten ikuskizunak estreinatu. Lau sorkuntzak ekarri nahi izan zituzte Tolosara, baina aurren bi baino ez dira iritsiko: «Gure nahia beste biak, afrikarra eta asiarra, hurrengo urtean ekartzea litzateke», gaineratu du.

Europako ikuskizuna Charleville-Mezieres hiriko FMTM jaialdian estreinatu zuten, baina «amerikarra ez da inon ikusi, eta hemen, Tolosan, ikusiko lehenengoz».

Proiektuaren berezitasunean jarri nahi izan du azpimarra: «Herrialde ezberdinetako gazteek sortutako ikuskizunak dira; hau da, amerikarra, esaterako, Txile, Mexiko, Kanada eta Ameriketako Estatu Batuetako gazteek sortua da. Sorkuntzarako elkartu diren gazteak dira, eta Ameriketako Estatu Ba-

tuetako zuzendaria dute. Europarrean aldiz, Portugal, Belgika, Frantzia eta Ingalaterra daude, eta zuzendari frantziarra izan dute».

Sorkuntza «interesgarri bezain bakarrak» direla dio. Indar handia dutela esan du, eta «Topic-ek eta Titirijaik babestu eta bultzatu behar dituen proiektuak dira».

Helduei zuzendutakoan artean, Alas Negras taldearen *Deracines* ikuskizuna Topic-en sortua izan da, eta ikusteko aukera izango da. Manu Mansilla argentinarraren lana ere go-

«Hemen arte gutxitua edo txikia moduan ikusi da; gutxietsia edo mespretxuz tratatua da, baina beste herrialde askotan titiriteroa estimatua da»

IDOYA OTEGI



raipatu nahi izan du Topic-eko zuzendariak. «Duela lau urte egon zenean ere izugarritzko arrakasta izan zuen». Paperaren teknikarekin teatroa egiten duen artista ere nabarmendu du, eta baita Murtziatik estreinatu berri etorriko den Dora Cantero ere.

Eskoletako haurren ikuskizunak normaltasunez itzuliko dira aurten, eta ikastetxeetatik ikasleak saioak ikustera joango dira. Sei ikuskizunen hogeiei emanaldi egingo dituzte.

Eskola, jardunaldia eta erakusketak

Ohiturari eutsiz udazkeneko eskola ere egingo dute. Kasu honetan paperezko antzerkiari zuzendua izango da, eta Alain Lecucq frantziarrak eskainiko du. «Paperaren antzerki berritua izango da, bertsio modernoan», zehaztu du Otegik. Eskolaz gain, jardunaldiak ere izango dituzte: Europako txotxongilolarien prestakuntzari eta profesionalizazioari buruzko gogoetak.

Hamalau hizlari etorriko dira, eta «oso interesgarritzat» jo du zuzendariak: «Formazioaz hitz egingo dute, eta ezinbestekoa da formazioa gurea bezalako herrialdeetan. Hemen ez da existitzen erregulatutako formaziorik. Eta ez gara bakarrik». Hilaren 23an hasi eta 27an amaituko dira saioak.

Horrez gain, Portugaldik arte eszenikoen ikasketak egiten ari diren hiru ikasle etorriko dira Tolosako Topic zentrora, nola lan egiten duten eta zer egiten duten ikusi eta ikastera.

«Indar gehiagorekin eta aktibitate gehiagorekin errekupeatu dugu Titirijai jaialdia», dio zuzendariak, eta gaineratu du: «Ilusio eta interes handiarekin». Eskaintza betea osatu dute, eta gainera, bi erakusketa inauguratuko dituzte jaialdia hastearekin batera.

Erakusketa bat paperezko antzerkiari eskainia izango da. Alain Lecucq artistaren bilduma pribatuaz gain, beste museo batzuetatik eta bilduma pribatuetatik ere lortu dituzte pieza esanguratsu batzuk Tolosara ekartzea. «Lehenengo aldia da paperezko antzerkiaren inguruko honelako erakusketa garrantzitsu bat egiten dela, eta gero Europako beste leku batzuetatik pasako da».

Bigarren erakusketa ere bitxia izango da, eta biniloko diskoak eta txotxongiloak elkartuko dituzte.

Orain, bihurtik aurrera, ikuskizunez gozatzea baino ez da geratzen. Hori bai, eta pandemia tarteko, emanaldi guztietarako sarrerak erosi beharko dira. Topic zentroaren *Topic.tolosa.com* webgunean eskuratu daitezke edota Topic-eko leihatilan bertan.

TXOTXONGILOAK

39. TITIRIJAI EMANALDIK

AZAROAK 20, LARUNBATA TEATRO DE PAPEL

12:00 / 17:00. Rauxa Teatro Herrialde Katalanetako konpainiaren eskutik izango da Topic-eko aurremuntaketa aretoan. Haizezko txotxongiloekin eta hitzik gabea da, eta familia guztiari zuzendua. 20 minutu.

HAMELIN

18:30. Herrialde Katalunetarik etorriko da Xip Xap konpainia. Gaztelaniaz eta familia guztiari eskainitako saioa egingo dute, mahaiko txotxongilo eta maskarekin, Topic antzokian. 50 minutu.

AZAROAK 21, IGANDEA KALEK,

HISTORIA DE UN CABALLO

12:00 / 17:30. El Retablo madrildar taldeak, Topic-eko aurremuntaketa aretoan, zazpi urtetik gorakoentzat eskainiko du eman-kizuna. Gaztelaniaz izango da mahaiko txotxongilo eta objektuekin. 45 minutu.

ECO

18:30. Andaluziako Y Medio Teatro taldearen eskutik, Topic antzokian, familia guztiarentzat saioa eskainiko dute hitzik gabe. Pailazoa, mahaiko txotxongiloak eta objektuak erabiliko dituzte. 55 minutu.

AZAROAK 27, LARUNBATA NIDO

12:00 / 17:30. Particulas Elementares talde portugaldarrak familia guztiari eskainitako saioa egingo du, hitzik gabe eta mahaiko txotxongiloekin. Topic-eko aurremuntaketa aretoan. 40 minutu.

MARICASTAÑA

17:00. Titiriteros de Binefar Ara-



goiko taldeak Leidor antzokian eskainiko du ikuskizuna. Eskularrua, haria, mahaia... erabilia, bi urtetik aurrerako haurrei zuzendua eta gaztelaniaz izango da. 55 minutuko iraupena du.

THE STRINGS OF MUSIC

18:30. Antama-Pantahou Greziako taldeak Topic antzokian eskainiko du saioa familia guztiarentzat. Haria, buruak, mahaiko txotxongiloak... erabiliko dituzte, eta hitzik gabea izango da. 50 minutu.

AZAROAK 28, IGANDEA NIDO

12:00 / 17:30. Particulas Elementares talde portugaldarrak familia guztiari eskainitako saioa egingo du, hitzik gabe eta mahaiko txotxongiloekin. Topic-eko aurremuntaketa aretoan. 40 minutu.

AZUL COMO UN TRAZO DE MAR

18:30. Lunas talde madrildarrak Topic antzokian bost urtetik gorakoentzat eskainiko du emanaldia, gaztelaniaz. Paperezko antzerkia, mahaia, objektuak... izango da teknika, eta 45 minutuko iraupena du.

HELDUENTZAKO IKUSKIZUNAK LAU SORKUNTZA LAU KONTINENTE

AZAROAK 22, ASTELEHENA CUSTOMS, AMERIKAR BERTSIOA

22:00. Ameriketako Estatu Batuetako taldeak hamasei urtetik gorakoentzat ingelesez egingo du saioa. Objektuak erabiliko dituzte, eta Topic antzokian izango da. 30 minutu.

CUSTOMS, EUROPAR BERTSIOA

22:00. Europako taldeak paperezko antzerkia egingo du itzalekin, eta ingelesa, frantsesa, portugesa, gaelikoa eta italiera erabiliko dituzte. Hamasei urtetik gorakoentzat izango da. Topic antzokian. 30 minutu

AZAROAK 23, ASTEARTEA COCTEL

22:00. Manu Mansilla talde argentinarrek hamabi urtetik gorakoentzat egingo du emanaldia. Gaztelaniaz izango da, hagaxkako



eta mahaiko objektuekin, Topic antzokian. 80 minutu.

AZAROAK 24, ASTEAZKENA **DERACINES**

22:00. Alas Negras Frantziako eta Argentinako konpainiak hamasei urtetik gorakoentzako emanaldia egingo du, Topic antzokian. Gaztelaniaz izango da, eta mahaiko txotxongiloak eta itzalak erabiliko dituzte. 45 minutuko iraupena izango du.

AZAROAK 25, OSTEGUNA **NIYAR, UNA HISTORIA DEL PAPEL**

22:00. Maayan Lungman taldea Israeldik eta Alemaniatik etorriko da, eta Topic antzokian izango da ikuskizuna. Zazpi urtetik aurrera-koentzat da. Hitzik gabea eta paperaren teknika erabiliko dute. 40 minutuko iraupena du.

AZAROAK 26, OSTIRALA **EL TIEMPO DE LAS TORTUGAS**

22:00. Murtziako Dora Cantero konpainiak hamasei urtetik gorakoentzat eta gaztelaniaz eskainiko du emanaldia, Topic antzokian. Mahaiko txotxongi-

loak, bideo-poesiak edo zuzeneko musika teknikak erabiliko dituzte. Iraupena 55 minutukoa izango da.

KALE IKUSKIZUNAK **TOLOSAN**

AZAROAK 20, LARUNBATA **TRES TEATROS O CUATRO**

12:30 / 18:00. Asturiasko Tras la Puerta Teatro taldearen eskutik, familia osoarentzako ikuskizuna izango da kultur etxean. Paperez eginiko antzerkia egingo dute, gaztelaniaz. 45 minutuko iraupena izango du.

AZAROAK 21, IGANDEA **PUCK Y SU TROUPE**

11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:30 / 17:30 / 18:30. Tombs Creatius taldea Herrialde Katalanetatik etorriko da, eta Zerkaussian eskainiko dituzte saioak. Familia guztiari zuzendua da, eta hitzik gabea da. Instalazio parte hartzailearen teknika erabiliko dute, eta 45 minutuko iraupena izango du ikuskizunak.

EL ONIRICO INTERIOR

12:00-14:00 / 17:00-19:00. Holo-que Herrialde Katalanetako konpainiak Berdura plaza izango du eszenatoki. Familia guztiari zuzendutako saioa eskainiko dute, eta hologramak teknika erabilita hitzik gabekoa izango da. 12 minutu.

AZAROAK 27, LARUNBATA **KUJIRA**

12:30 / 18:00. Titelles de Lleida Herrialde Katalanetako taldeak 12:30ean Emeterio Arrese plazan eskainiko du emanaldia, eta 18:00etan, berriz, Plaza Zaharrean. Familia guztiari zuzendua da, eta hitzik gabea. Kalejira teknika erabiliko dute, eta 20 minutuko saioa izango da.

AZAROAK 28, IGANDEA **INGENII MACHINA**

11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:30 / 17:30 / 18:30. Alauda Teatro konpainia Gaztela eta Leondik etorriko da, eta Zerkaussian eskainiko dute ikuskizuna. Hitzik gabea eta instalazio parte hartzailearen teknika erabilita familia guztiari zuzendutako emanaldia eskainiko dute. 20 minutuko iraupena du.

SARRERAK

Jaialdiko ikuskizun guztietarako sarrerak erosi behar dira *Topictolosa.com* webgunean edo Topic-eko leihatilan.

TOPIC / LEIDOR / KULTUR ETXEA

Helduek. 7 euro. Familia ugariak edo Topic-eko lagunak, 5 euro.

Hurrek. 4 euro. Familia ugariak edo Topic-eko lagunak, 3 euro.

BERDURA PLAZA

Helduek. 4 euro. Familia ugariak edo Topic-eko lagunak, 3 euro.

Hurrek. 3 euro. Familia ugariak edo Topic-eko lagunak, 2 euro.

ZERKAUSIA

Helduek eta hurrek. 5 euro. Familia ugariak edo Topic-eko lagunak, 4 euro.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Eguraldi ederra. Goiz hotz baten ostean, goizean bertan behe-lainoa agertuko da, baina jaso ostean, zerua ia erabat oskarbi egongo da eta giro eguzkitsuz gozatu ahalko da egun osoz. Haizeak aldakor joko du, goizean tarteka hego ukitu batekin eta arratsaldean ipar-ekialdeko ukitu batekin. Tenperatura igo eta 14-16 gradu bitartean joko du goia.

LARUNBATA

Eguraldi ederrarekin jarraituko dugu. Goizean behe-lainoa agertuko da, baina segituan jasoko du eta zeruan urdina nagusituko da. Eguerditik aurrera goi-hodei batzuk agertuko zaizkigu zeruari kolore zurixka emanez, baina bestelako garrantzirik gabe. Haizeak aldakor joko du, ekialdeko ukitu batekin eta tenperatura balio altuenak antzeko balioetan kokatuko dira, 14-16 gradutan joko dute larik goia.

IGANDEA

Okerrera egingo du eguraldiak. Goizean erdi eta goi-mailako hodei asko agertuko da zeruan, baina ateri eutsiko dio eta goiza bera nahiko lasaia izango da. Arratsaldean ordea, fronte bat iritsiko zaigu eta giroak okerrera egingo du. Zerua erabat estalirik egongo da eta euri zaparradak izango ditugu, non tarteka mardul botako duen. Mendebal, ipar-mendebaldeko haizea izango dugu eta tenperaturak behera egingo du, 12-14 gradutan joko duelarik goia.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

AZAROAK 19, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Eurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

AZAROAK 20, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

AZAROAK 21, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

AZAROAK 22, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 20 17.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU

AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUAK, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE
GARAJEA ETA TRASTELEKUA
AUKERAN

210.000 €
-tik hasita



BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE IREKIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!



169.627€-tik hasita

BLACK FRIDAY

%20ko deskontua
betaurreko graduatuetan
+
2. betaurreko osoa
opari



San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiopticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen